



HONETAN ERE... SEGÜRU

NATURA, GIZARTE ETA
KULTUR INGURUNEAREN
EZAGUERAKO JARDUERAK

ETA MUGI-
KORTASUN
SEGURUA

LEHEN
HEZKUNTZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico



AURKEZPENA

Derrigorrezko hezkuntzako curriculumean, mugikortasun segurua zeharkako eduki gisa sartu da curriculumeko hainbat arlotan, bereziki *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza eta Etika eta Gizabide Hezkuntza* arloetan. Ohituraz bide hezkuntza esan izan zaiona, maiz, bigarren mailan geratu izan da gainerako edukien presioaren ondorioz. Hala ere, ikastetxe askok, ikasgelan zirkulazio istripuen prebentzioa landu behar dela jakitun izanik, mukurua beteta izan ohi duten egutegiko ordu batzuk kanpoko eragileei uzten dizkiete, bide hezkuntzako jardueraren bat egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzan, harago joan behar dugula pentsatzen dugu. *Mugikortasun segururako hezkuntza* modu integratuan sartu behar da eskola curriculumean. Hori justifikatzeko arrazoia soila da, baina konplexua ere bai, aldi berean: heriotza goiztiarrak prebenitzea eta zirkulazio istripuetan izaten diren zauritu larrien zerrenda amaiezina geldiaraztea. Hezkuntza komunitate osoak bultzada handia eman diezaioke gure ahaleginari, eta asmo handiko dema honetan elkarlanean aritu gaitezke.



Horretarako, curriculumeko arlo bakoitzeko berariazko edukiak prebentzioaren ikuspegitik ikasgelan inplementatzeko aukera ematen duten jarduerak proposatzen ditugu.

Zu ere hezkuntzako eragile zarenez, funtsezkoa da zirkulazio istripuen epidemia isila errotik kentzeko demara egin dezakezun ekarpena. Eskerrik asko, aldezturik, jarduera hauetara hurbildu eta ikasgelan gauzatzeagatik.

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza



AURKIBIDEA

Zirkulazio istripuak: benetako arazoa, benetakoegia. [4]

Mugikortasun segururako hezkuntza: prebentziorako tresna. [5]

Mugikortasun segurua Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguerako curriculumean. [6]

LEHEN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [9]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [10]

JARDUERAK

1 Zer nahaspila, hau zarata! [11]

2 Lehenago eta geroago. [13]

3 Gauzen zergatia. [14]

4 Hutsegiteen jokoa. [30]

5 Zer arriskua! [33]

BIGARREN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [35]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [36]

JARDUERAK

6 Zertara jolastuko gara? [37]

7 Txirrindua. [38]

8 Eguraldia eta gu. [40]

9 Auzune ideala. [42]

10 Bizkor, bizkor, kenduko didate eta! [45]

HIRUGARREN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [47]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [48]

JARDUERAK

11 Denboraren joana. [49]

12 Publizitatearen eragina. [52]

13 Zer egingo dut? [54]

14 Egunez egunekoari behatuz. [56]

15 Babesaren muga gaindituz. [57]

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean


Lehen Hezkuntza

ZIRKULAZIO ISTRIPUAK: BENETAKO ARAZOA, BENETAKOEGIA

Garapenerako gure gizarte eredu motordun ibilgailuen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, zirkulazio istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da.

Gizartea gero eta jakitunago da zirkulazio istripuek eragiten dituzten biktimen kopurua murriztu beharra dagoela. Zirkulazio istripuetan hiltzen eta zauritzen direnen tasek behera egin dute, pixkanaka, gure inguruan, baina, hala ere, hilen eta zaurituen kopuruak epidemia batek eragindakoak adina dira oraindik. Eta, gainera, ezin dugu ahaztu zirkulazio istripuen biktima zuzenez gain, istripuen ondorioak zeharka jasaten dituzten pertsonak ere badirela: istripu larri bakoitzaren atzean, heriotza bakoitzaren atzean, familia tragedia bat dago.

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu zirkulazio istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta istripuak berak bakarrik saihestuko dituen ezer ere. Hala ere, guztiok onartzen dugu *giza faktorea* dela zirkulazio istripu gehien atzean dagoena.



Giza faktorea deritzon horren ikuspegitik, arriskutsu direla hautematen ditugun egoerak saihestera eramango gaituen jokabide edo portaeratzat jotzen da prebentzioa; edo baldin arriskua errealitate bihurtzen bada, haren ondorioak murriztuko direla ziurtatuko duten jokaerak hartzea izango da.

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA: PREBENTZIORAKO TRESNA

Benetan prebenitzeko, arriskua ezagutu, hauteman eta saihesteko nahia izan behar dugu.

Prebentziorako gure hezkuntza eredua «*Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida*¹» izeneko dokumentuan jaso dugu.

Gidaliburu horretan hezkuntza ibilbide osoa zehaztu da, eta honako galdera hauei erantzutea du helburu: *zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan*. Ez da soilik ikastetxeetan erabiltzeko gidaliburua. Pertsonak, bizitza osoan, zirkulazio istripuak saihesteko edo istripuen ondorioak txikiagotzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak definitu dira.

Mugikortasun segururako oinarritzko zazpi gaitasun zehaztu dira gidaliburuan:

Arreta

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

Ingurunearen azterketa

Taldeko presioarekiko erresistentzia

Egokitzapena eta malgutasuna

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea



¹ Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun Segururako Hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURUA NATURA, GIZARTE ETA KULTUR INGURUNEAREN EZAGUERAKO CURRÍCULUMEAN

Derrigorrezko Hezkuntzaren xedea da pertsonaren alderdi intelektuala, afektiboa eta soziala era oso eta harmonikoan garatzea.

Arlo honetako curriculumak ikasleen gorputzeko, zentzumenetako eta buruko garapen ebolutiboari erantzun behar dio; sei urtetik hamabira bitarteko haurren pentsamendu konkretuari; bere ingurune elementuekin harreman afektiboak ezartze aldera duen ahalmen eta interes zabalari; eta, orobat, etaparen bukaeran pentsamendu abstraktuan hasteko beharrari. Curriculum esparru horretan, ingurunea, ezagutzeko gaia ez ezik, bada elementu motibatzailea, jardute eremua eta ikaskuntza eragiten eta integratzen duen baliabidea ere.²

Zer dute erkide Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguerako ikasketak eta mugikortasun segururako hezkuntzak?

1. BALIOAK

*Azken batean, arloko curriculumaren asmoa da etapa horretako ikasleengan ahalmenak, ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak garatzea, beren ingurunean eta bizi diren gizartean ulertzeko eta arduratsuki jarduteko; eta beste gizarte batzuk ezagutzera hurbiltzea, ingurumena zaintzeari eta, parte hartze demokratikoaren bidez, gizabanakoen nahiz giza taldeen eskubideen defentsari dagokienez herritar gisa duten **erantzukizunaz** jakitun izatea. Ikastetxean eramango da aurrera hori, eskola komunitate osoaren esku hartzearekin,*

*gatazkak gainditzearen bitartez, **bizikidetza** osasuntsua aldeztuz eta, horrenbestez, partekatzen eta elkarrizketan jarduten dakiten herritarrak heziz, berdintasunean eta inolako bereizkeriarik gabe adostasunetara hel daitezen.*

Mugikortasun segururako hezkuntza zirkulazio istripuak murrizteko eta istripuen larritasuna arintzeko estrategiatzat jotzen dugu, eta helburu du pertsona elementu aktibo izatea istripuen prebentzioan. Horretarako, garrantzitsua da pertsonak bere kabuz moldatzeko duen gaitasuna (autonomia), espazio komunetan eta partekatuetan ibiltzen denean (bizikidetza).

2. TREBETASUNAK ETA EGITEN JAKITEA

Arloak funtsezko ekarpena egiten dio zientzia, teknologia eta osasun kulturako gaitasunari. Izan ere, barne hartzen dituen ikaskuntzetako asko gizakiak bere inguruko munduarekin duen elkarrekintza dute ardatz erabat. Gaitasuna pixkanaka eratuz doa, mundu fisikoa interpretatzea ahalbidetzen duten trebetasunak bereganatzearen bidez, bai eta ezaguera zientifikoa eratzeko erabiltzen den metodoaren ezaugarri jakin batzuetara (arazoak definitzen jakitea, soluzio posibleak balioztatzea, estrategiak lantzea, ikerketa txikiak diseinatzea, emaitzak aztertu eta komunikatzea) hurbiltzearen bidez ere. Hori lagungarria da, halaber, historian zehar ezagueraren gizarte eraikuntza gisa ikerketa jarduerak dituen izaera, indarguneak eta ahulguneak ezagutzeko ere.

Mugikortasun segururako hezkuntza.

Gaitasunen gida izeneko dokumentuan jaso dugun istripuak prebenitzeko hezkuntza ereduan, behin eta berriro aipatzen da gizabanako ororen gizarteko garapenean eta norberaren garapenean «egiten jakitea», eta ikasleekin lantzeko proposatzen dituen gaitasun guztiak erraz lot daitezke inguratzen gaituen mundu fisikoaren ezaguera eta interpretazioarekin.

3. HELBURUAK

Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagueraren irakaskuntzak, etapa honetan, helburutzat izango du gaitasun hauek lortzea:

- 2. Talde jardueretan parte hartzea, jokabide arduratsu, kooperatibo, solidario eta eraikitzailea hartuta, funtzionamendu demokratikoaren printzipioak aplikatuz, eta helburu komunei jarraituz norberaren eta besteren ekarpenak balioetsita, komunitateari elkartasunez ekarpenak egitearren, inolako bereizkeriarik gabe (generoa, arrazak, kulturak, erlijioa...).*
- 4. Giza gorputzaren eta haren aukera eta muga ezagueratik datozen osasuneko eta norbere burua zaintzeko ohiturei jarraituz jokatzeko. Gizabanakoen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartu eta errespetatzeko jarrera erakutsiko da. Osasuna gizabanakoaren eta komunitatearen ondasuna dela ulertzea da helburua.*

² Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguerako hezkuntza curriculumak.

8. Ingurune elementu esanguratsuei lotutako itaunak eta arazoak identifikatu, planteatu eta ebaztea. Horretarako, informazioa bilatu eta tratatzeko, aieruak formulatzeko eta aieruak probatzeko estrategiak erabiliko dira, ordeko konponbideak esploratzearren eta ikaskuntza prozesuari berari buruz gogoeta egitearren.

10. Informazio eta komunikazio teknologiek erabiltzea, informazioa eskuratzeko eta ezaguerak ikasi eta partekatzeak. Balioetsi egingo da bai haien ondorea, bai pertsonen bizi baldintzei eta haien inguruneari egiten dioten ekarpena, zenbait giza beharrian asetzen laguntze aldera.

12. Nortasun propio bat itxuratzea, besteekiko elkarrekintzan gizaki autonomo eta sozialtzat garatzeko lorpen, ahalegin eta hobetze motibazioa bultzatuko dioten estrategiak aldeztuta.

Dokumentu honetan proposatu ditugun jarduera guztiek lotura zuzena dute helburu horietakoren batekin.

4. PARTE-HARTZEKO METODOLOGIA

Globaltasunaren ideia gidari izan behar dugu etapa honetan, eta, horrenbestez, langai dugun arloan. Jakin behar dugu eduki guztiak esperientazioaren, ikerketaren, landa lanen, irteeren, bisiten, zuzeneko behaketaren eta abarren inguruan integratzen, bai eta informazio eta komunikazio teknologien erabileraren inguruan ere.

Nahiz eta banakako lana beharrezkoa den eta baztertu behar ez den, nabarmentzekoa da ikastaldea lantaldetan antolatzearen garrantzia; lantalde horiek kooperazioz eta elkartasunez jardungo dute. Horiek horrela, irakaslearen rola ikasleen alde aurreko ideia eta eskemak bilakartzeko ikaskuntza egoerak aurkeztea izango da.

Dokumentu honetan proposatu ditugun jardueren helburua da esperientazioa eta kidekoen arteko elkarriketa bultzatzea; eta, horretarako, ibilgailuen zirkulazioari loturiko edukiak baliatuko dira. Mugikortasuna egunerokotasuneko kontua dugu eta, beraz, interes ardatzetako bat da guztiontzat.

Mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguerako hezkuntzaren garapenean integratu ditugu. Izan ere, ingurune horrek ikasleen esperientazioa eta ikerketa aldeztu du, dituzten ideiak erkatu eta beste ideia batzuk sortu ahal izan ditzaten.

Horrenbestez, ikasleekin egingo den lanak bi alderdietan lagunduko du, eta koherente eta eraginkorra izango da bi irakasgaietarako.

5. EDUKIAK

Dokumentu honetan proposaturiko jarduerak ingurunea irudikatzeko eta ezagutzeko aukerak handitzen dituzte. Jarduerak eurak kidekoen artean ikasteko tresna dira, eta hala natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezaguera, nola mugikortasun segururako hezkuntza lantzeko bidea ematen dute, era berean.

Bereziki sartuta daude 1., 3., 4., 5. eta 6. eduki multzoetako proposamenak:

1. eduki multzoak («Ingurunea eta haren kontserbazioa») hainbat eduki dakartza: espazioaren pertzepzioa eta irudikapena; unibertsoa; klima eta haren eragina; ura eta haren aprobetxamendua; gizakiek naturaren gainean jarduteko duten ahalmena, eta hortik datozen ondorioak; eta abar.

3. eduki multzoak («Osasuna eta garapen pertsonala») ezaguerak, trebetasunak eta iaotasunak integratzen ditu, norberaren gorputzaren ezagueratik abiatuta arrisku

jokabideak prebenitzearren, eta jokaera arduratsuak nahiz bizimodu osasuntsuak garatu eta indartzeko ekimenak aurrera eramatearren.

4. eduki multzoak («Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza») dauden edukiak gizartearen funtzionamendua ulertzea bideratuta daude, abiapuntutzat hartuta bai hurbileko organizazioak aztertzea, bai Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakundeak ezagutzeko. Hori guztia, organizazio guztietan beharrezko parte hartze demokratikoa izatera zuzenduta.

5. eduki multzoak («Aldaketak, denboran») Historiaren ikaskuntza abiatzen du. Denboraren neurriari eta denbora historikoaren kontzeptualizaziora hurbiltzeari buruzko edukiak dauzka; horretarako, garai historikoetako gizarte batzuen ezaugarriak azaltzen dira, bai eta Euskal Herriko eta Espainiako historian nabarmenak diren gertaera eta pertsonaien ezaugarriak ere.

6. eduki multzoak («Materia eta energia») fenomeno fisikoei, substantziei eta aldaketa kimikoei buruzko edukiak dakartza. Eduki horiek oinarriak jarriko dizkiete geroagoko ikaskuntzei eta baliabideen erabilera arrazionalari.

Eduki multzo bakoitzean, bi gaiak lotu ahal izan ditugu, haien helburuak lortze aldera.

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza





LEHEN ZIKLOA



LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. NORK BERE BURUA EZAGUTZEA ETA KONTROLATZEA.	1	2	3	4	5
Elementu eta fenomeno natural batzuk hauteman eta deskribatzea: ilargia; izarrak eta eguzkia; eguna eta gaua.			●		
Atmosferako fenomeno batzuei behatzea, eta lehenengo irudikatze formak.			●		
3. EDUKI MULTZOA. OSASUNA ETA GARAPEN PERTSONALA	1	2	3	4	5
Gaixotasunak eta etxeko istripuak prebenitzeko ohiturak.					●
4. EDUKI MULTZOA. PERTSONAK, KULTURAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA	1	2	3	4	5
Taldekideen eskubide eta betebeharrakiko sentiberatasuna eta errespetua. Taldean komunikazio trukerako oinarritzko arauak erabiltzea, eta hartutako erabaki demokratikoak errespetatzea.					●
Ingurune hurbilean (eskola eta udalerrria) antolatze erak. Tokiko erakundeen erantzukizun eta eginkizunak ezagutzeko sarrera.				●	
Bizikidetzaren egoerak eta gatazkak simulatzea: gatazkaren aurretik, bitartean eta geroago. Gatazkei irtenbidea emateko modu demokratikoak.					●
Joan-etorriak eta garraiobideak. Erantzukizuna, oinezkotzat eta erabiltzailatzat oinarritzko arauak errespetatzea. Eguneroko bizitzan mugikortasun sostengagarriaren garrantzia.				●	●
5. EDUKI MULTZOA. ALDAKETAK, DENBORAN	1	2	3	4	5
Oinarritzko denbora nozioak (lehenago/geroago, lehenaldia/orainaldia/geroaldia, iraupena) eta neurri unitateak (eguna, astea, hila, urtea) erabiltzea.		●	●		
Familiako iturrietatik abiatuta, lehenaldiaren oroimena berreraikitzen hasia.		●			
Ahozko iturriak eta familiako objektu nahiz oroitzapenak emandako informazioa erabiltzea, lehenaldia berreraikitze.		●			
Eguneroko bizitzako oinarritzko alderdiren batek (jantzia, etxebizitza, lan egiteko erak, errepideak, familia antolaketa, jokoak...) denboran izan dituen bilakaera faseei segimendua egin eta behatzea.		●			●
Iraganeko eta orainaldiko gertaerak, eta haien esperientziatik hurbil diren alde historikoekin duten zerikusia. Ikaslearen historia frisoa eraikitzea.		●			
6. EDUKI MULTZOA. MATERIA ETA ENERGIA	1	2	3	4	5
Soinua hautematea. Soinua hainbat bitartekotan transmititzea. Zarata, eta hots kutsadura: murrizteko neurriak.	●				

LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	1	2	3	4	5
Arreta	●			●	
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia		●	●	●	●
Ingurunea aztertzea	●	●	●	●	●
Taldeko presioarekiko erresistentzia	●				
Egokitzea eta malgutasuna	●				
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



1. JARDUERA


ZER NAHASPILA, HAU ZARATA!

HELBURUAK

- Giro zaratatsuetan arretari eustearen zailtasuna esperimentatzea.
- Mugikortasuneko egoeretan arretaz jokatzeko garrantzitsua dela balioestea.

METODOA

Jokoa, talde eztabaida.



NOLA EGIN

Hezitzaileak parte hartzaileei esperimentu bat proposatuko die: agindu erraz batzuei jarraitzea, giroko zaraten interferentziarekin.

Parte hartzaileek biribilean ibili beharko dute, guztiek alde bererantz, hezitzaileak emandako estimuluei kasu eginda, eta bi laguntzailek gogaitze lanak egiten dituztela. Laguntzaile horiek ikasleen artean aukeratuko dira, jokoa hasi baino lehen, eta zaratak egin beharko dituzte ahotsa erabili gabe: gorputzarekin (oinak, eskuak), gauzekin (makilatxoak, bolaluma) edo bururatzen zaien edozerekin. Hezitzailearen aginduei kasu egingo dioten parte hartzaileak gogaitzeko egin behar dira zaratak.

Lehen fasean, ez da hotsik izango.

Bigarren fasean, laguntzaileetako batek bakarrik egingo du hotsa.

Hirugarren fasean, biek egingo dute hotsa.

Gero, berriz lehen fasera itzuli eta isilik geratuko dira.

Hezitzaileak markatuko ditu fase batetik bestera aldatzeko uneak, bi laguntzaileentzat.

Hezitzaileak agindu hauek emango ditu, txandaka, ahots normalarekin:

1. **«aldatu noranzkoa»:** eskuinerantz biratzen ari baziren, ezkererantz egin beharko dute, eta alderantziz.
2. **«jauzi»:** jauzi bat egin, eta jarraitu oinez.
3. **«adi»:** hiru pauso oso poliki egin behar dituzte.

Garrantzitsua da aldi luze batean esperimentatzea, jarraitu beharreko aginduetara ohitzeko eta bizipen osoa izateko.

Era berean, gezurrezko aginduak eman daitezke, konparazio batera hezitzaileak oihu egin dezake «pilota», eta ikusi ea parte hartzaileak nahasten dituen.

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Aldaketak, denboran

Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





Hezitzaileak egoki deritzonean, esperientzia geldituko du. Parte hartzaileei esertzeko eskatuko die, eta galdera hauek egingo dizkie:

- Zer zailtasun izan dituzue?
- Noiz izan zaizue errazena aginduei jarraitzea?
- Askotan nahasi zarete?
- Aginduak ondo entzuten ziren?
- Nola lot dezakegu esperientzia hori kalean ibiltzearekin?
- Batez ere zer elementuri egin behar diegu kasu, kalean gabiltzanean?

Ondorioak

- Gure hirietako kaleak autoek, motorrek, autobusek hartu dituzte.
- Oinezkoak, joan-etorrietan, etengabeko zaratarekin bizi behar izaten dute.
- Neurritz gainera zarata oso kaltegarria da osasunerako. Gainera, etengabe arreta galarazten du, eta horrek jokabide arriskutsuak izatera eraman gaitzake.
- Hiri lasaigoak eskatzen ditugu, oinezkoentzako gunerik gabekoekin.

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



2. JARDUERA

LEHENAGO ETA GEROAGO

HELBURUAK

- Azken bi belaunaldietan mugikortasunak izan duen bilakaeraz gogoeta egitea.
- Mugitu beharrak ekartzen dizkigun arriskuak balioztatzea.

METODOA

Elkarriketak eta talde eztabaida.



NOLA EGIN

Parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du aitonari edo amonari elkarriketa labur bat egiteko ardura, hura txikia zenean mugikortasuna nolakoa zen jakiteko:

Galderen adibideak:

Nolakoak ziren zure hiriko kaleak?

Non jolasten zineten?

Nola joaten zineten eskolara?

Autorik bazenuten etxean? Zenbat?

Zer erabiltzen zenuten bidaia luzeak egiteko?

Zenbat denbora behar zenuten?

Ikasleak ume txikiak baldin badira, erantzunak idatzi beharrean grabatu egin ahal izango dituzte, edo aitona-amonei eurei idazten laguntzeko eskatu.

Hainbat elkarriketa eginak ditugunean, guk geuk erantzun ahalko diegu galderei. Adibidez, binaka jar gaitezke, eta elkarriketa elkarri egin.

Azkenik, guztiok elkarrekin eztabaida dezakegu gure aitona-amonen mugikortasunaren eta gurearen arteko ezberdintasunez, eta ondorio batzuk atera:

1. Guk asko erabiltzen dugu autoa, edonora joateko. Bi auto izaten dugu familia askotan, eta askoz gutxiago mugitzen gara oinez.

2. Gure aitona-amonek bidaia luzeak trenez edo autoz egin ohi zituzten; guk, asko erabiltzen dugu hegazkina, garraiobide laster eta segurua, baina eguratsa asko zikintzen duena.

3. Gure aitona-amonak lasai ibil zitezkeen oinez kaleetan eta errepideetan zehar; ez ziren orain bezain toki arriskutsuak. Haurrak bakarrik irteten ziren, trafiko istripurik izateko beldurrik gabe. Orain, berriz, betiere heldu batek lagunduta ibiltzera kondenatuta daude, lehen urriak ziren autoak orain oso ugari direlako.

4. Istripuen, hilen eta zauritu larrien kopurua asko aldatu da hamarkada hauetan. Izan ere, izugarri handitu da arriskua eta kalean nahiz errepideetan hiltzeko aukera. Azken urteotan, 2000. urteaz geroztik —parte hartzaileak jaio baino lehentxoagotik—, Europar Batasuna Estatu kideei bultza egiten ari zaie, trafiko istripuetako hilak eta zauritu larriak gutxitzeko ekintzak aurrera eraman ditzaten. Zorionez, azken hamahiru urte honetan, hilen kopurua nabarmen txikiagotu da, nahiz eta oraindik oso handia den.

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Aldaketak, denboran
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○




3. JARDUERA GAUZEN ZERGATIA

HELBURUAK

- Kausaren eta ondorioaren arteko erlazioa identifikatzea.
- Gure ekintzek mugikortasun seguruan dituzten ondorioak balioztatzea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak lau taldetan banatuko ditu ikasleak, eta parte hartzaileei esango die banatutako kartei begiratzeko. Kartetan, hainbat irudi daude, inolako ordenarik gabe jarriak. Irudi horiek beren artean erlazionatu behar dituzte, istorio edo prozesu laburrak eratzeko (*ikus 1. eranskina*).

Taldeen lana bukatutakoan, ikastalde osoa bilduta elkarri azalpenak emango dizkiote. Talde bakoitzeko ordezkari batek taldearen aukeraren arrazoiak emango ditu, arrazoi horietan aldeak izan baitaitezke.

Eztabaidatik abiatuta, parte hartzaileak gauzen zergatikoaz hitz egitera eramango ditugu, kausa eta efektuaz, kausa eta ondorioaz hitz egitera iristeraino.

Behin kontzeptuak ulertuta, berriz ere bilduko ditugu lehengo taldeak, eta karta batzuk aztertuko dituzte, oraingoan trafikoari lotutako marrazkiak dituztenak.

Azken jarduera hau bi erataria egin daiteke, parte hartzaileen adinaren arabera eta hezitzailearen ustez duten heldutasunaren arabera.

1. Bertsio erraza:

Lehen proposatutako ariketa bera egingo dugu. Istorio labur bat berreraikiko dugu, bide irudietatik abiatuta (*ikus 2. eranskina*).

Parte hartzaileek hasiera bat eta bukaera bat hautatu behar dute istorio bakoitzerako, betiere eurentzat seguruena direnak hartuta. Gero, hautaketa horiek azaldu eta justifikatuko dituzte.

2. Bertsio zaila:

Egin jarduera bera, baina oraingoan estimulu bat, irudi bat erakutsiz (*ikus 3. eranskina*). Eurek erabaki beharko dute ea zein prozesu gertatu den lehenago edo geroago. Osatutakoan, istorioak talde handian kontatu daitezke. Azkenean, hezitzaileak galdetuko du ea istorioetako zein den seguruena, eta zein arriskutsuena, eta zergatik.

Esaterako, kalearen erdian dagoen pilota baten irudia baldin badugu, talde batek hau suposa lezake:

- parkean jolasten ari dira / pilotak kalearen erdira ihes egin die / haurrek guraso bati eskatu diote bila joan dadila.

Bertsio hori seguruagoa litzateke ondorengo hau baino:

- kalean jolasten ari gara / pilotak ihes egin digu / gu geu joan gara haren bila.

Istorio baten eta bestearen hasiera eta bukaera ikusita, bigarrena arriskutsua da, eta lehena seguru.

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea

Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Aldaketak, denboran



Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean


Lehen Hezkuntza ○○○







HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean




HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean





HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean





HONETAN ERE... SEGURU


Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean







HASIERAKO IRUDIA





PROZESUKO IRUDIA



HEZITZAILEARENTZAKO OHARRA: jokabide zuzena, seguruena, nabarmenduko dugu.



BUKAERAKO IRUDIA





HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

HASIERAKO IRUDIA



PROZESUKO IRUDIA





HEZITZAILEARENTZAKO OHARRA: jokabide zuzena, segurua, nabarmenduko dugu.

HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

BUKAERAKO IRUDIA



25


HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean


Lehen Hezkuntza ●○○




HASIERAKO IRUDIA



PROZESUKO IRUDIA





HEZITZAILEARENTZAKO OHARRA: jokabide zuzena, seguruen, nabarmenduko dugu.



HONETAN ERE... SEGURO




Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

BUKAERAKO IRUDIA





HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean




4.º JARDUERA HUTSEGITEEN JOKOA

HELBURUAK

- Mugikortasun segurua garatzen lagunduko dioten bere inguruneke elementuak identifikatzea.
- Mugikortasunean espaziorik eta jokabiderik seguruena zein diren balioztatzea.

METODOA

Marraskia, ariketa.



NOLA EGIN

Parte hartzaileetako bakoitzari kalearen marrazki bat emango diogu, eranskinetako antzekoa. Marraskiak hutsegite asko izango ditu, edo espazio horretarako desegokiak diren ekintza asko. Konparazio batera: semaforo bat dago galtzadaren erdian; oinezkoen pasabidetik kanpora zeharkatzen da kalea. Bakoitzak 10 hutsegiteak bilatu behar ditu.

Lehenengo bukatzen duena izango da irabazlea, eta hutsegiteak zein diren adierazteko eskatuko zaio. Esandako hutsegiteak idatziko ditu hezitzaileak, eta gainerakoei galdetuko die ea zer litzatekeen zuzena.

Hutsegiteen zerrenda osatuz joango da, marrazkietan agertu diren guztiak jasota.




Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Aldaketak, denboran
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○






HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○



HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean


5. JARDUERA ZER ARRISKUA!

HELBURUAK

- Trafikoaren egunez egunekoan izaten diren arriskuak identifikatzea.

METODOA

Talde txikian lan egin eta dramatizazioa.



NOLA EGIN

Hezitzaileak ikastaldea talde txikietan banatuko du. Esango du hainbat garaitan bizi izandako pertsonen eta haiek aurkitzen zituzten arriskuen antzezpenak egingo dituztela.

- Batzuek historiaurreko gizakien arriskuak antzeztuko dituzte.
- Beste batzuek, egungo gizakien arriskuak.
- Eta beste batzuek, etorkizuneko gizakien arriskuak.

Behar izanez gero, ikasleei beren funtzio inprobisatuak antolatzen lagunduko zaie, pertsonaiak iradokiz. Segidan, talde bakoitzak bere antzezpena egingo du. Antzezpena egiten den bitartean, ikasleek garai horretan zer arrisku dauden gogoratu beharko dute, eta antzezpenak bukatzean arbelean idatziko dira.

Antzezpen guztiak bukatzean, ikasleei galdetuko zaie ea nola saihestu ahal izango zituzketen arrisku jakin batzuk. Adibidez: historiaurreko gizakiek nola saihestu ahal izango zuketena mamut batek zapaldu zitzan; edo, gaur egun, ea nola saihestu daitekeen autobus batek harrapatzea; edo, etorkizunean, ea nola saihestu ahal izango den plater hegalarien arteko talka baten biktima izatea.

Berdin dio zer arrisku sartzen dituzten, asmoa da arriskuaren eta prebentzioaren kontzeptua ulertzea: arriskua gertatzeari aurrea hartzeko zer egin dezaketen jakitea.

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Aldaketak, denboran
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





BIGARREN ZIKLOA

BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. NORK BERE BURUA EZAGUTZEA ETA KONTROLATZEA	6	7	8	9	10
Gure ingurune naturala: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta Euskal Herriko klima, flora eta fauna.			●		
Aldagai meteorologikoak: tenperatura, hezetasuna, haizea, prezipitazioak. Meteorologia aparatuak erabiltzea, eta eguraldiaren erregistroari eta irudikapen grafikoei buruzko hastapenak.			●		
Auzunearen edo herriaren planoak erabiltzea.				●	
3. EDUKI MULTZOA. OSASUNA ETA GARAPEN PERTSONALA	6	7	8	9	10
Higieneko, atsedeneko eta elikadura osasuntsuko ohiturak identifikatu eta hartzea. Dieta orekatuak. Osasunerako arriskuak prebenitu eta detektatzea.		●			●
Emozioak eta sentimenduak identifikatu eta deskribatzea.					●
4. EDUKI MULTZOA. PERTSONAK, KULTURAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA	6	7	8	9	10
Gizarte organizazioak: lagun taldea, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak; eta erantzukizunak hartzea.				●	
Bizikidetzara arauak; arau horiek hezkuntza komunitate osoaren artean taxutzea; eta arau horiek betetzea. Lankidetzara eta elkarriketa gatazkei konponbidea emateko bidetzat balioestea.	●			●	
Landa eta hiri inguruneetako demografia nahiz ekonomia ezaugarri batzuk behatu, identifikatu eta deskribatzea.				●	
Erantzukizuna, oinezkotzat eta garraiobideen nahiz bestelako zerbitzuen erabiltzailetzat oinarritzko arauak errespetatzea. Mugikortasun sostengagarriaren garrantzia.	●	●		●	●
6. EDUKI MULTZOA. MATERIA ETA ENERGIA	6	7	8	9	10
Erabilera arrunteko materialen propietateak eta energia aldaketan aurrean duten jokamoldea aztertzearen esperientzia errazak planifikatu eta gauzatzea, emaitzei buruzko esplikaziozko iragarpenak eginda.					●
Objektuak mugiarazten edo deformatzen dituzten indar ezagunak identifikatzea. Erakartze edota aldentze indarrak.					●
Erabilerako, segurtasuneko eta laneko tresnen nahiz materialen kontserbazioko arauak errespetatzea.	●				●

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○●○



BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	6	7	8	9	10
Arreta					
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia		●	●	●	●
Ingurunea aztertzea	●	●	●	●	●
Taldeko presioarekiko erresistentzia					
Egokitzea eta malgutasuna	●	●	●	●	●
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



6. JARDUERA


ZERTARA JOLASTUKO GARA?

HELBURUAK

- Gu babestearren eta elkarrekin bizitzearren guztien artean hitzartu diren funtzionamendu arauak errespetatzearren egokitasunari buruz gogoeta egitea.
- Trafikoa arautzeko aukeratutako arauez gogoeta egitea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak talde txikietan jar daitezen eskatuko die parte hartzaileei (*gehienez lau laguneko taldeak*), eta joko ezagun edo asmatu bat proposatzeko eskatuko die. Jokoa pentsatutakoan, talde bakoitzak besteei esplikatu diete zer joko proposatzen duten (*komenigarri ikusten bada, jokoa egin ere egin daiteke*).

Azalpen bakoitzaren bukaeran, jokoa aztertuko da:

- Nola funtzionatzen du jokoa?
- Zer lortu nahi dugu jokoarekin? (*Helburuez hitz egin dezaten.*)
- Zer jarraibideri jarraitu behar diete? (*Arauez hitz egin dezaten.*)
- Zer gertatuko da arauak errespetatzen ez baditugu? (*Ondorioez hitz egiteko.*)

Hezitzaileak arbelean idatziko ditu talde bakoitzaren ekarpenak.

Behin joko guztiak esplikatuta, talde guztiek jasotako erantzunak konparatuko ditugu, eta bat datozen elementu asko daudela nabarmenduko dugu.

Gero, guztion artean gogoeta egingo dugu trafiko arauak duten garrantziaz. Arau horiek, egiaz, jokoaren arauak bezalakoak dira. Saiatuko gara eurek hitz egin dezatela gai hauetaz:

- Zer arau ezagutzen dituzue?
- Zertarako balio dute arau horiek?
- Zer ondorio izan ditzake arauak ez errespetatzeak?

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○●○



7. JARDUERA TXIRRINDUA

HELBURUAK

- Prebentzioa balioestea, istripuak gutxitzeko ekintza gisa.
- Txirrinduz ibiltzean prebentzioa egiteko balio duten segurtasun pasiboko elementuak identifikatzea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Lana talde txikietan egiteko jarraibideak:

«Adiskide talde bat zarete, eta txango bat egin nahi duzue mendian zehar, txirrinduz. Txangoa egiteko zer osagarri eramango dituzuen aukera dezakezue.»

Eskainitako txirrindua mendiko bizikleta da, eta fabrikatik ez dakar inolako osagarririk. Oinarrizko egitura besterik ez dakar (gurpilak, eskulekua, katea...). Eranskinetako zerrendan ageri dira erantsi daitezkeen osagarriak.

Parte hartzaile bakoitzari zerrenda bat emango zaio (ikus eranskina). Esango zaio lehentasuna eman behar diela txangoan txirrinduekin eramateko garrantzitsuenak iruditzen zaizkion elementuei.

Bakoitzak bere aldetik aukeratzen bukatutakoan, banakako gogoeta guztien artean eztabaidatzen da, gehienez ere 5 parte hartzaileko talde txiki batean: helburua da txirrinduan txangorako eramateko 5 elementu hitzartzea.

Hezitzaileak, 20 minutu igarotakoan, talde bakoitzeko kideei eskatuko die negoziatutik ateratako zerrenda emateko. Zerrendak talde handian azalduko dira, eta eztabaida irekiko da, parte hartzaile guztiek zerrenda egitean erabili dituzten irizpideez beren iritzia eman dezaten, eta segurtasunaren nahiz prebentzioaren aldetik osagarri bakoitza aukeratzeko arrazoiak eman ditzaten.

Garrantzitsua da eztabaidan, besteak beste, kontzeptu hauek argitzea:

- **Segurtasun pasiboko elementuak:** jarrita eramaten ditudan eta txirrindutik, patinetik... erortzen banaiz babestuko nauten eta kaltea txikiagotuko didaten gauzak (kaskoa, belaunetakoak, eskularruak...).
- **Prebentzioa:** ezer txarrik gerta ez dakidan egiten ditudan gauzak (semaforoa duen oinezkoentzako pasabidetik pasatzen naiz; ez dut kalea zeharkatzen autoak pasatzen ari direnean...).

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea

Osasuna eta garapen pertsonala

Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza

Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○●○





OSAGARRIAK

OSAGARRIA	NORBERAREN ZERRENDA	ZERRENDA PARTEKATUA
Atzerako ispilua		
Txirrina		
Martxa gehiago		
Ordezko pneumatikoa		
Kaskoa		
Eguzkitako betaurrekoak		
Edari isotonikoa		
Elementu islatzaileak		
Aurreko argi zuria		
Atzeko argi gorria		
Praka barrenak lotzeko uztaiak		
Arropa iragazgaitza		
Telefono mugikorra		
Lurraldearen mapa		
Iparrorratza		
Eskularruak		
Belaunetakoak		
Giltzarrapoa		
Lehen sorospenetarako botika kutxa		

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



3. JARDUERA EGURALDIA ETA GU

HELBURUAK

Eguraldiaren aldaketek gure bide jokabidean duten eragina balioztatzea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.

NOLA EGIN

Hezitzaileak launa laguneko lantaldeak antolatuko ditu.

Talde bakoitzak eguraldia eta haren elementuak (brisa, ekaitza, urakana, elurra, euria, lainoa, eguzkia eta abar) adierazten dituzten hainbat irudi izango ditu. (*Ikus eranskina.*)

Kontua da izen bat eta irudikatutako eguraldiaren azalpen bat ematea, eta guri nola eragiten digun ere esplikatzea:

- Nola janzten gara?
- Zer jarduera egin ditzakegu edo ez ditzakegu egin? (*Adibidez: eguzkia denean, hondartzara joaten gara.*)
- Zer egiten dugu eguraldi hori egiten duenean? (*Adibidez: aterkia erabiltzen dugu, eguzkitako krema jartzen dugu...*)

Ekarpen guztiak elkarri azalduko dizkiote, konparatzeko eta klimak gure jokabideetan dituen eraginez eztabaidatzeko.

Orobat, eztabaidan, irudi bakoitzean ondorengo galdera hauek sartuko ditugu, mugikortasunarekin eta kaleko jokabideekin erlazionatzearen:

- Nola eragiten die gidariei? (*Elurra denean, kateak jarri behar dituzte.*)
- Nola eragiten die oinezkoiei? (*Euria baldin bada, ezin dute kalean lasterka ibili.*)

Horrek guztiak taldeari gogoeta eragingo dio, kalean gure eguneroko bizitzan eguraldiaren fenomenoiei egokitu beharraz. Fenomeno horiek, bereziki oinezkoentzat, zer arrisku dakarten hitz egiteko proposatuko diegu:

- Begiratu gabe kalea zeharkatzea.
- Semaforoa gorri dagoela kalea zeharkatzea.
- Autoen artean kalea zeharkatzea.
- Klean adigabe ibiltzea, parkinetako irteerei adi ibili gabe.
- Klean jolasten ibiltzea.
- Galtzadatik ibiltzea.
- Kalea oinezkoen igarobidetik kanpo zeharkatzea.
- Eta abar.

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea





Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○●○





HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

9. JARDUERA AUZUNE IDEALA

HELBURUAK

- Segurtasun elementuak identifikatzea: trafiko gutxiago, kale zabalak, zona partekatu seinalizatatuak, eta abar.
- Nire inguruko segurtasun elementuen beharra balioestea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea, landa lana egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Jarduera hau egiteko eta oinarriko filosofia ulertzeko, interesgarria da aldeaz aurretik **La città dei bambini** proiektuari begiratzea.



Oso proiektu garrantzitsua da, eta erreferentzia puntua da hala Eusko Jaurlaritzarentzat nola beste eskualde batzuentzat. Proiektu horrek sakon heltzen dio hiri baten gaiari: hiri horretan, haurrak libre dira mugitzeko eta kalean jolasteko, arriskurik gabe. *Haurren hiri*a proiektua Fano herrian (Italia) sortu zen. Francesco Tonucci izan zen idearen sortzailea, 1991ko maiatzean. Lehenengo helburua zen haurrei etxetik gurasoen laguntasunik gabe ateratzeko aukera ematea.

Hezkuntzakoa baizik ez den edo besterik gabe haurrei laguntzekoa den interpretazioa alde batera utzita, proiektuak hasieratik izan du motibazio politikoa: hiriaren gobernuari buruzko filosofia berri baterantz lan egitea, haurrak herritar guztien beharren parametrotzat eta bermetzat hartuta. Kontua ez da haurrentzako baliabide eta zerbitzuak handitzea, baizik eta askotarikoa eta guztientzako hobe izango den hiri bat eraikitzea, haurrek herritar autonomo eta parte hartzaile gisa bizitzeko aukera izan dezaten. Proiektuak hainbat motibazio ditu. Garrantzitsu eta esanguratsuenak ondorengo web orri honetan laburbilduta aurkituko dituzu:

www.lacittadeibambini.org/spagnolo/interna.htm

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea

Osasuna eta garapen pertsonala

Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza

Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○



Jarduera honen iradokizunak ez du arreta hirian jarri nahi, baizik eta auzunean. Asmoa da gizabanakoek auzune idealari buruz zer iritzi duten jakitea. Horretarako, lehendabizi eurek talde txikietan lan egingo dute, gaiaz hitz egiteko eta ondorio batzuetara iristeko.

Hortik abiatuta, talde handian azalduko dira ondorioak, eta auzune ideal batek izan beharreko ezaugarrien zerrenda bat egingo da guztien artean.


Interesgarria litzateke ezaugarriak honela sailkatzea: aisia, zerbitzuak, segurtasuna... Horrela, elementuak falta direla ohartuz gero, zerrenda osatu ahalko dute.

Gero, ikasleei eskatuko zaie inkesta bat (*ikus 1. eranskina*) egin diezaietela ezagutzen dituzten pertsoneri (familiakoak, adiskideak, auzokoak...). Hurrengo egunean, elkarri azalduko dizkiote, talde txikietan, inkestatu dituzten pertsonen esan dutenaren eta eurek diseinatutako auzune idealaren arteko ezberdintasunak aztertzeko.

Elementu nagusiak zein diren aztertu beharko litzateke; eta, bereziki, ea gure auzune idealean segurtasuna balioesten dugun. Adibidez: bada zirkulaziorik, badira oinezkoentzako eremuak, kaleak zabalak dira, bada bidegorri babesturik, eta abar?

ADIBIDEZ

AISIA	ZERBITZUAK	BIDE SEGURTASUNA	BESTELAKOAK
Haur parkea	Tranbia, autobusa...	Oinezkoentzako kaleak	
Zinemak	Azoka	Autorik ez izatea	



HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean





INKESTA

Zer elementu izango lituzke zure auzune idealak?

AISIA	ZERBITZUAK	BIDE SEGURTASUNA	BESTELAKOAK

Zer ezaugarri izan beharko lituzke zure auzune idealak? Marka ezazu bietako bat, eta adieraz ezazu garrantzitsuena, azpimarratuta:

	Lasaia, barea		Jendez betea
	Segurua		Ez segurua
	Oinezkoentzakoa		Zirkulazio libreko kaleak
	Berdegunea		Berdegunerik gabe
	Bidegorria		Bidegorririk gabe

Zer elementuk egingo lukete zure auzunea seguruago?

	Polizia gehiago		Auto gutxiago
	Espaloi zabalagoak		Argi gehiago
	Zaintze kamerak		

Zer falta zaio zure oraingo auzuneari, ideala izateko?

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



10. JARDUERA

BIZKOR, BIZKOR, KENDUKO DIDATE ETA!

HELBURUAK

- Abiadura eta gelditzeko zailtasuna esperimentatzea.
- Abiadurak gure mugikortasunean izan ditzakeen ondorioez ohartzea.

METODOA

Jolastea eta taldean eztabaidatzea.

NOLA EGIN

Jarduera horrek zapiaren haur jokoan aritzen jarri nahi ditu parte hartzaileak, horrela abiaduraren efektuak, erreakzio denbora eta galgatze denbora fisikoki esperimenta ditzaten. Gero, hiru elementu horiek eta trafikoa erlazionatuko ditugu, talde eztabaida batean.

Jokoa honela egingo da:

- Bi talde eratuko dira, jokalaria kopuru berdinarekin, eta talde bakoitza bestearengandik distantzia jakin batera jarriko da, lerro baten atzean.
- Talde bakoitzeko jokalaria bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio, ordena korrelatiboan, batetik hasita.
- Joko eremuaren erdian, pertsona bat jarriko da, eta zapi bat izango du eskutik zintzilik, bereizteko lerroaren gain-gainean.
- Zapiari eusten dion pertsonak zenbaki bat esango du ozen, eta, orduan, zenbaki hori duen talde bakoitzeko kideak lasterka egin beharko du zapia hartzearen eta bera zegoen tokira atzera eramatearren.
- Lortzen duen lehenak irabaziko du txanda hori, eta talde aurkariko parte hartzailea kanporatuta geratuko da.

Era berean, kanporatuta geratuko dira hauek:

1. Beste jokalaria zapia hartu izan gabe zapiaren azpian dagoen bereizte linea gainditzten duena.
2. Zapia hartu eta gero aurkariak ukitu duena.

Jokalaria bat kanporatzen denean, taldea berrantolatu egin behar da, eta zenbakia beste taldekide bati esleitu. Aurkari guztiak kanporatzea lortzen duen taldeak irabazten du.

Esperientzia bukatutakoan, ikasleei gertatutakoaz gogoeta egiteko eskatuko zaie.

- Zergatik kanporatu dituzte?
- Zer zailtasun zituen jokoak?

Garrantzitsua da hezitzaileak hurrei abiaduraren eta gelditzeko erreakzio denboraren gaineko gogoeta eragitea.

Era berean, hau guztia kalean etengabe gertatzen dena azaldu behar die. Ibilgailuek zenbat eta abiadura handiagoa, zailagoa zaie galgatzea. Horrenbestez, seguruagoa da une horretan kalea ez zeharkatzea.



Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○●○





HIRUGARREN ZIKLOA

HIRUGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. NORK BERE BURUA EZAGUTZEA ETA KONTROLATZEA.	11	12	13	14	15
Espazio ezagunak hautematea eta eskalan irudikatzea.	●				
Gizakiak, ingurumeneko osagai gisa, eta naturarekin elkarrekinztan jarduteko duten gaitasuna. Giza eraldatzeen balioztapena: urbanizazioa, industrializazioa, komunikabideak, materialak erauztea...	●				
Landa lanak taldean egitea.				●	
3. EDUKI MULTZOA. OSASUNA ETA GARAPEN PERTSONALA	11	12	13	14	15
Garapen osasungarria eta jokabide arduratsua aldeztu edo oztokatzen dituzten faktoreen eta gizarte jardunbideen aurrean (kale garbitasuna, segurtasun arauak, medikuntza prebentiboa, kirola...) iritzi kritikoa izatea.			●		
Lehen sorospenak ezagutzea, norbere buruari eta besteei laguntzen jakiteko.					●
Nortasun pertsonala. Norbere burua ezagutzea eta autoestimua. Autonomia izatea, ekintzak eta atazak planifikatzeko eta gauzatzeko orduan. Erabakiak hartzean ekimena garatzea.			●		
Ahalegin eta lan pertsonala, zereginetan jarrera aktiboa eta arduratsua erakutsita, autokritika eginez eta norbere aukeretan uste osoa izaten.	●		●		
4. EDUKI MULTZOA. PERTSONAK, KULTURAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA	11	12	13	14	15
Estereotipoak eta edonolako bereizkeriak gainditzea, eta besteekiko enpatia garatzea.			●		
Publizitateak kontsumoaren gainean duen eragina ezagutzea, eta haren aurrean jarrera kritikoa izatea.		●			
Taldean lan egitearen aldeko jarrera. Lankidetzaren eta parte hartze arduratsuen aldeko jarrerak, elkarriketa eta eztabaidetan besteen ideia eta ekarpenekiko errespetu eta tolerantzia desadostasunak onartuta.	●		●	●	
6. EDUKI MULTZOA. MATERIA ETA ENERGIA	11	12	13	14	15
Esperientziak eta ikerketak egitean kooperazio lana balioestea, helburu komunak lortzean berdintasuneko eta parte hartze kritiko eta arduratsuko jarrerak garatuta.	●			●	

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○



HIRUGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	11	12	13	14	15
Arreta		●		●	
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●	●	●		●
Ingurunea aztertzea	●		●	●	
Taldeko presioarekiko erresistentzia		●	●		
Egokitzea eta malgutasuna	●		●		●
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea			●		

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



11. JARDUERA DENBORAREN JOANA

HELBURUAK

- Aldaketei buruz, aldaketak gertatzeko moduari buruz eta gizakiok aldaketetara egokitzeko dugun moduari buruz gogoeta egitea.
- Oinezko gisa seguruago ibiltzea dakarkiguten elementuak identifikatzea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea, taldean eztabaidatzea.

NOLA EGIN

Hezitzaileak 1. *eranskin*eko irudiak erakutsiko dizkie parte hartzaileei (*irudi hauek edo hezitzaileak aurkitutako antzeko beste batzuk erabil daitezke*).

Irudi horiek gure hiri edo herrietako toki jakin batzuk erakusten dituzte, orainaldian eta iraganean.


Talde bakoitzari argazki bikote bat emango diogu. Talde horrek argazkiak konparatu eta ezberdintasunak bilatuko ditu.

Aldi bat geroago, aurkitutako ezberdintasunak elkarri azalduko dizkiote, adibidez: ez zegoen semafororik, eta orain badago...

Gogoeta egingo da, aldaketak zergatik egin diren (*adibidez: semaforoa jarri zen seguruago zirkulatzeko, trafikoa handitu baitzen*).

Segidan, talde txikiek ikastetxetik hurbileneko ingurunearen mapa egingo dute, ingurunea seguruago egiten duten elementuak adierazita.

Azkenik, elkarri azalduko dizkiote mapak, eta horietaz hitz egingo dute.



Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURO


Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





DONOSTIAREN IRAGANA ETA ORAINA (adibide gisa)



Argazkien iturria: <http://www.todocoleccion.net>

HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





Argazkien iturria: <http://www.todocoleccion.net>

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○

12. JARDUERA


PUBLIZITATEAREN ERAGINA

HELBURUAK

- Inguruneak gure jokabidean duen eragina ezagutzea.
- Eragin «txar» batek ekar ditzakeen arriskuak identifikatzea.
- Gure eguneroko bizitzan eragina balioztatzea.

METODOA

Taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak parte hartzaileak U forman antolatuko ditu, proiektatuko diren iragarkiak hobeto ikus ditzaten (*ikus 1. eranskina*) eta gero proposatuko den eztabaidan parte har dezaten.

Hainbat iragarki ikusiko ditugu, eta horietako bakoitza aztertuko. Galdera hauek proposatuko ditugu:

- Zer produktu saltzen dute?
- Zer estrategia erabiltzen dituzte horretarako?
- Egiaz zer saltzen dute, hau da, zer ilusio eragiten dute iragarkia ikusten dutenen artean?

Gogoeta egingo dugu iragarkiek gudan sortutako presioaren eta eraginaren gainean, eta nola jarraitzen diogun joera nagusiari.

Azken iragarkia (autoen iragarkia) trafikoari lotuta dago zuzenean, eta segurtasunaz dugun pertzepzioari eragiten dio. Iragarki hori azkena ikusiko dugu, eta gure buruari galdetuko diogu:

- Zer arrisku ageri dira iragarkian?
- Egia da seguruago gaudela autoan, gure etxean baino?
- Zer arrisku aurki ditzakegu kaletik ibiltzean?



52

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





YOUTUBEKO IRAGARKIAK




Coca-Colak ez du bereizkeriarik egiten, mundu guztiarentzat da.
https://www.youtube.com/watch?v=5l4_N33AYvw




Actimel
<https://www.youtube.com/watch?v=GT3SqqB9syU>



Arrautzesneak
<https://www.youtube.com/watch?v=FGB9wtco3uE>



Bizar aitzurraren leuntasuna.
https://www.youtube.com/watch?v=RuSJ_lw3tL8



Mixta
https://www.youtube.com/watch?v=TMvwgUvo_s4



Seguruagoa da autoan izatea, zeure etxean egotea baino (arriskuak). Egia da baieztapen hori? Zer arrisku aurkituko ditugu kalean?
<https://www.youtube.com/watch?v=i-iIM87jtFU>

HONETAN ERE... SEGURO

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



13. JARDUERA ZER EGINGO DUT?

HELBURUAK

Gure ekintzek dakartzaten arriskuak hausnartu eta balioztatzea

METODOA

Dilema



NOLA EGIN

Hezitzaileak dilema bat zer den azalduko die: istorio bat da, bi aukeraren artean erabaki bat hartzera behartzen gaituena, bi aukera besterik ez baita izaten. Bi aukeretako bat hautatu behar da; biak dira onargarri, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte.

Behin dilema zer den esplikatuta, hezitzaileak *Gogoko dut patinatzea* eranskineko istorioa kontatuko du, eta amaieran, bi aukerak errepikatuko ditu:

- Goiko kaletik joango naiz?
- Beheko kaletik lasterka joango naiz?

Ikasleak lerroan jarriko ditu, begiak ixteko eskatuko die (elkarren eraginik izan ez dezaten), eta esango die lehenengo aukeraren alde daudenak jar daitezela bere eskuinaldean, eta bigarren aukeraren alde daudenak bere ezkerrean.

Bi aukerak sortu direnean, azpitaldeak egingo dira (*lau-sei kidekoa bakoitza*), bi aukeretan azpitalde kopuru berdintsua izan dadin saiaturaz.

Azpitalde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiak gainean gogoeta egingo du. Azpitalde bakoitzeko bozeramaileak beren arrazoiak azalduko dizkio talde osoari.

Bozeramaile guztiek azalpenak eman eta gero, eztabaida egingo dute talde handian, eta parte-hartzaile bakoitzak arrazoiak alde edo kontrako iritzia emateko aukera izango du.

Eztabaidan, parte-hartzaileetako edozein lekuz alda daiteke, baldin iritzia aldatzen badu. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

54

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○





GOGOKO DUT PATINATZEA

Klara izena dut, gure aitak muturtuta itxaroten ninduen gaur etxean. Badirudi haserre zegoela nik zer edo zer gaizki egin dudalako.

Kezkatuta eta haserre ageri zen. Hala, bada, sartu naizenean, ez dut askorik galdetu behar izan. Bera laster hasi da itaunketan.

- *Non zeunden?* –galdetu dit.
- *Parkean* –erantzun diot.
- *Norekin?* –jarraitu du.
- *Ikastetxeko taldearekin.*
- *Zer egiten?*
- *Patinatzen.*
- *Eta nola joan zara?*
- *Patinatzen.*
- *Eta nondik?*
- *Beheko kaletik.*

Badirudi horrexek sutu duela gehien. Gure etxeko beheko kalea zuzenean doa parkera. Bide laburrena izateaz gainera, hortixe etortzen zaizkit bila adiskideak... baina badirudi nik ez diodala garrantzirik eman kale horrek kontrako noranzkoa izateari eta espaloiak oso estuak izateari.

Ondo pentsatuta, arrazoi du aitak: gure etxeko goiko kaleak noranzko bikoitza du, eta gainera espaloiak zabalagoak dira; beraz, handik seguruago joan ninteke. Baina aspergarria da, aldapa gora joan behar dudalako, bide luzeagoa delako eta adiskideak hortik inoiz ere joaten ez direlako.

Egia esan, orain arte ez nuen horretaz pentsatu ere egin, baina ematen du aitak erabaki duela dagoeneko ez dagoela aukerarik. Edo goiko kaletik joaten naiz, edo ez naiz patinatzeraz joango.

Tira, ez dago beste ezer eztabaidatzeko... edo horixe zen nik uste nuena.

Biharamunean, egun gehienetan bezala, Mireiak, nire adiskide hoberenetako batek, deitu egin dit, elkarrekin parkera patinatzeraz joateko. Badirudi zenbait egunez taldekako patinatze lehiaketa bat izango dela parkean, eta talde osoak emango dugula izena. Txandaka aritzeko abiadura lasterketa bat da. Gaur parkean elkartzekoak gara, lehiatuko den taldean gutako nor sartuko diren erabakitzeko. Esan didate nire bila etorriko direla etxera, parkerako bidean.

Dei galduta egin didatenean, lasterka jaitsi naiz, patinak dagoeneko oinetan jarrita. Deitu egin didate, eta laster joan naiz haiengana, baina ez dira gelditu, patinatzen jarraitu dute kalearen kontrako noranzkoan.

Orduan, oihu egin diet gelditzeko, eta goiko kaletik joan gaitezela esateko, baina taldearen erdia baizik ez da gelditu, gainerakoak oihu egin didate denbora ez galarazteko: «*Tira, tira. Parkera lehenengo iristen dena lehiaketa taldeko kide izango da! Zer, ez al duzu lehiatu nahi, Klara?*»

Mireiak eskutik heldu dit, eta arrastaka eraman nahi izan nau: «*Tira, azkenak helduko gara, eta nik parte hartu nahi dut!*»

Orduan, oihu bat entzun da. Gotzonek irrist egin du, eta erori egin da. Talde osoa geratu da, eta lasterka joan da zer gertatu zaion ikustera. Guk, metro batzuk atzerago baikeunden, aurrera egin dugu, ea nola dagoen.

Oso eroriko inozoa izan da. Pare bat urratu, eta kolpe latza belaunean. Eskerrak eskumuturrekoak eta babesak jarrita zeramatzan!

Gotzon bere onera etorritakoan, zutitzen ari zela, turuta entzun dugu, kalearen erdian baikaude. Izututa, espaloi txikira igo gara, ahal bezala.

- *A zer ikara!* –esan du Mireiak–. *Gotzonez hain arduratuta nongoen, konturatu ere ez naiz egin autoak zetoze.*
- *Goazen gotik* –esan diot–. *Hau arriskutsua da. Goiko kalean espaloiak zabalagoak dira, eta ez dugu galtzadatik joan beharko.*
- *Tira, ez izan beldurtia* –esan du Andonik–. *Hiru arte zenbatuko dugu, eta lasterketa egingo dugu. Iristen diren lehendabiziko bostak izango dira lehiaketarako sailkatuko direnak.*

Zortzi gara taldean, nik ez dut kanpoan geratu nahi, baina badakit jende hau nirekin etortzeko konbentzitzen ez badut eta aitak jakiten badu, aitak kanporatuko nauela taldetik.

Mireiak esan du hartu duen ikararekin bera nirekin etorriko dela goiko kaletik, baina ematen du gainerakoak lasterka hasiko direla... ezingo dut parte hartu!

Zer egingo dut? Goiko kaletik joango naiz, ala beheko kaletik lasterka abiatuko naiz?

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○



14. JARDUERA EGUNEZ EGUNEKOARI BEHATUZ

HELBURUAK

- Arriskuko jokabideak eta jokabide seguruak identifikatzea.
- Jokabide horiek dituzten ondorioak balioztatzea.

METODOA

Behatzea, talde txikian lan egitea eta taldean eztabaidatzea.

NOLA EGIN



Hezitzaileak ikasleei jakinaraziko die hurrengo egunean ikastetxeko sarrerari edo irteerari behatu behar diotela: ea nola bidaiatzen duen eskolara iristen den jendeak, ea zer garraiobide erabiltzen duten, eta ea nola erabiltzen dituzten ibilgailuak.

Asmoa da, beste agindurik gabe, zehazki une horretan zer gertatzen den idatz dezatela edo argazkiak atera ditzatela.

Gero, ikasgelan, talde txikietan aztertuko dugu behatutakoa, eta talde bakoitzak behatutako jokabideen zerrenda egingo du. Adibidez: ibilgailu pribatuan etorri direnek non aparkatu duten, ea traba egiten zuten, ea zein aldetatik jaisten ziren bidaiariak...

Azterketan nabarmendu beharrekoa izango da ea zein den jokabiderik seguruena eta zein diren arrisku handienekoak.

Bukatutakoan, talde handian elkarri azalduko diote zer egin daitekeen ikastetxeko sarrera edo irteera seguruagoa izateko, zer elementu beharko lirakekeen, zer jarrera eta jokabide izango lirakekeen egokienak...



Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○



15. JARDUERA BABESAREN MUGA GAINDITUZ

HELBURUAK

- Norbere burua babestearen garrantziaz gogoeta egitea.
- Lehen sorospeneko egoera batean, norbere burua babesteko elementuak identifikatzea.

METODOA

Jokoa, talde eztabaida eta rol jokoa.



NOLA EGIN

Joko honetan nahi beste aldiz aritu gaitzke. Asmoa da, hain zuzen ere, **muga nola gainditzen den** asmatzea. Parte hartzaileek muga gainditzeko arau inplizitua ondorioztatu behar dute.

Hezitzaileak edozein arau asma dezake, muga igaro dezaten.

Ikasleak gauzak esanez joango dira, eta asmatzen duenak muga igaroko du. Etengabeko elkarrizketako jokoa da. Hezitzaileak arrasto batzuk eman behar dizkie parte hartzaileei, erantzun zuzena zein den ondorioztatu dezaten (hezitzaileak paper batean idatzita izango du, erantzun zuzena zein den erakutsi ahal izateko).

Esaterako:

Hezitzaileak erantzun zuzena hau dela idatzi du: *Parte hartzaileak esan behar duela eskuinean duen jokalaria zerbait jarri duela, edo jokalaria horren ezaugarriaren bat duela.* Orduan hasiko da jokoa. Jokalariak biribilean eseriko dira. Ikasleak gauzak esaten hasiko dira, eta jokoa zuzentzen duenak arrastoak emango ditu:

- *Muga gainditzeko, Jonek ilea moztu behar du; Nereak elastiko berdea jantzi behar du; Ikerrek, gona urdina; eta abar.* Arrasto horiek bakoitzaren eskuineko jokalaria ezaugarri fisikoei, jantziei edo bestelako ezaugarri buruzkoak dira (edo ezkerreko jokalaria; alde aurretik erabaki beharko dugu bietako zein, gero beti koherentziaz jarduteko): Jonenak, Nerearenak edo Ikerrenak...

Jokalari batek muga gainditzea ondoan duen pertsona bihurtzea dela asmatzen duenean bukatzen da jokoa.

Jarduera honetan, iradokizun hau sartzen dugu: muga gainditzeko araua **parte hartzaileak bere burua babestea** izan dadila, bere burua babesteko edozein proposamen egin dezala (kaskoa erabiltzea, eskularruak, tanke baten barruan joatea...), babestuta egoteko edozein ekintza.

Eman ditzakegun arrastoak:

- Armadura jar genezake
- Tanke batean joan gintezke
- Kaskoa erabil genezake

Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea
Osasuna eta garapen pertsonala
Pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza
Materia eta energia

HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Lehen Hezkuntza ○○○




Jardueraren ondoren egin beharreko gogoeta da garrantzitsua dela norbere burua babestea, eta lehen sorospenetako oinarritzko pausoak sartuko dira, halako egoeretan nork bere burua babestea zein garrantzitsua den nabarmenduta batez ere.

BOS (BABESTEA, OHARTARAZTEA, SOROSTEA) (Informazio gehiago, 1. eranskinean.)

BABESTEA	OHARTARAZTEA	SOROSTEA
Istripua izan duenarentzat eta guretzat tokia seguru egin.	112 telefonora deitu, eta istripua izan duenari eta istripuari buruz informazio esanguratsu guztia eman.	Dakiguna besterik ez egin. Jakintzarik ez baldin badugu, laguntza profesionala heldu arte itxaron.

Interesgarria litzateke, jarduera bukatzeko eta pausoak ondo ulertu dituztela ziurtatzeko, rol joko bat egitea. Joko horretan, istripu bat antzeztuko da, eta ikasle talde batek istripua izan duena artatu beharko du (ikus 2. eranskina).



HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean





KONTUAN IZAN BEHARREKO EZAGUERAK

BABESTEIA eta gertalekua segurtatzea, beste istripurik gerta ez dadin eta gertatutakoak larriagotu ez daitezen. Horretarako, eremua behar bezala segurtatuko edo seinaleztatuko da, eta biktimek edo sorosleek izan dezaketen edozein sute, elektrokuzio, eroriko, luizi... arrisku kontrolatuko edo saihestuko da.

OHARTARAZTEA sorospen taldeei, agintariei eta abarri, baliabiderik lasterrena erabiliz. Datu hauek eman behar dira:

- Istripua non izan den.
- Zer istripu edo gertaera mota izan den.
- Zaurituen kopurua, gutxi gorabehera.
- Zaurituen egoera eta zauriak, baldin badakizkigu.
- Egoera larriagotu dezaketen gorabeherak edo arriskuak.

Sorosteko eskaera telefonoz egiten baldin bada, ahal izanez gero eman iezaezu deitzeko erabiltzen ari zaren telefonoaren zenbakia, gero informazioa edo datu gehiago behar badute zurekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten. Dei anonimoek edo identifikatu gabeko telefonoetatik egindakoek ez dute konfiantza handirik eragiten.

SOROSTEIA istripua izan duena edo bat-batean gaixotu dena, tokian bertan. Lehenengo zaintzak egingo dizkiogu, laguntza osatuko duten langile espezializatuak heldu arte. Horrela, haren egoera larriagotu ez dadin saiatuko gara.

Istripurik izanez gero, adibidez, jarraibide hauek bete behar ditugu:

- Bizkor jardun, baina ernegatu gabe.
- Biktimak zenbatu, biktimaren batzuk ezkutuan egon ote daitezkeen ere pentsatuta.
- Ez artatu aurkitzen duzun lehenengo biktima, edota gehien oihu egiten duena, baizik eta lehentasunen ordena bat ezarri.
- Tokian bertan, zaurituen lehenengo ebaluazioa egin.
- Biktima maneiatzean, konturik handienaz ibili, oraindik ez baitakigu seguru zer duen.

Baina, zer egin behar dugun jakitea garrantzitsua den arren, oso garrantzitsua da zer egin behar ez dugun jakitea. Horrenbestez, seguru dakizuna besterik ez egin. Lehenengo zaintza horien menpe dago biktimek gero izango duten bilakaera.



HONETAN ERE... SEGURO


Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean



Neska-mutiko talde bat gurasoekin txango batean doa, bizikletaz.

Egun osoan lasterka eta jolasean ibili dira, eta eguerdian bazkaltzera geratu dira etxetzar batean. Bazkaltzen bukatutakoan, hurrek gurasoei esan diete jolastera doazela kanpora.

Futbolekin jokatzen hasi dira, eta pilotak ihes egin die etxetzarraren sarrerako biderantz. Haurretako bat lasterka abiatu da baloia jasotzera, estropezu egin du, eta kexu da orkatila bihurritu duela eta.




Eman beharreko pausoak:

BAP

B: bidearen alde bietarantz begiratu, inor ez datorrela ziurtatzeko (norbera babestu), eta bidetik irteten lagundu, kontu handiz, erori den haurrari (zauritua babestu)

A: aita-amei ohartaraztea.

P: profesional batek orkatila azter dezala.



Oso garrantzitsua da pauso guztiak islatuta geratzea, eta, baten bat falta bada, eztabaida dezatela horietatik zein egin behar den eta zein ez.



HONETAN ERE... SEGURU

Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Material honen egileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio

taller kreatiboa
taller creativo
creative workshop

tk

-2013-

